

Aurkezpena

TOLEDO LEZETA, Ana M.
Literatura Ikerketa Batzordeburua

Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak (LIB) antolatuta, iragan urteko abenduaren 13an *Euskal Literaturaren Historiografiari* buruzko II. Jardunaldiak egin ziren Donostiako Aita Villasante Ikergunean. Jardunaldiak jorratu zuen gaia periodizazioa izan zen.

Euskal literaturaren antologia bat osatu nahian gabiltza batzordeko ki-deok. Berez, jada amaituta dago lehen liburukia: «Erdi Arotik Errenazimentura» izenburupean, denbora-tarte horretan ekoiztutako corpora abiapuntu, alderdiren batetik esanguratsuak jo diren idazlanetatik lagin zabal samarra jasotzen du. Ikuspunturen batetik adierazgarria izan zitekeen idazlan oro hartu da gogoan; izan ere, literatur genero tradizionalen barrutia gaindituz, bada balio historikoan oinarrituz aukeratutako testutatik bildutako zatirik ere.

Euskal literaturaren antologia osatu nahi bada, egitasmoa ez da bukatzen Errenazimentuan, noski. Edozein dela ere bizitzako eremua, une jakin batean indarrean daukana iraunkortasun mugatukoa du, denbora ez delako alferrik igarotzen. Hortik, ardatz diakronikoan kokatuz egindako azterketa guztien justifikazioa. Baita historian barrena mamitu diren idazlan literarioei buruz dihardutenena ere, jardun literarioaren jarraibideak aldatuz joan direlako denboran zehar.

Azterketa diakronikoak aroak, garaiak, aldiak, bereiztea eskatzen du. Aroak, garaiak, aldiak bereizteak, berriz, eragiketa gauzatzeko irizpideak. *Euskal Literaturaren Historiografiari* buruzko II. Jardunaldien asmoa testuini-

guru horretan sortzen da. Horrenbestez, jardunaldiak antologiak euskarri izan zitzakeen periodizazio-irizpideak argitzea, zehaztea, zuen xede. LIBk esku artean duen egitasmoa, hain justu euskal literaturaren antologia, egituratzen laguntzea zuen jomuga jardunaldiak.

Gauza jakina da euskal literaturaren ibilbidean, gutxienez XIX. mende arte, testu profanoaren urritasuna nabarmena izan dela. Urritasun horrek, eta ez bestek, desberdintzen du inguratzen duten hizkuntza ofizialetan idatzitako literatura handietatik, gainerakoan, euskal testuak ez baitira isolamenduaren produktu. Dena den, zehatz-mehatz literarioak izan daitezkeen beharrak asetzera bideratutako idazlanei beste premia batzuei erantzuteko idatzitakoak modu ohargarrian nagusitzeak ez du errazten periodizazio-lana.

Horregatik, zein idazlanetatik jaso laginak erabakitzeak edo aldiak zedarritzeko erabili beharreko irizpideak finkatzeak badu zailtasun erantsirik. *Euskal Literaturaren Historiografiari* buruzko II. Jardunaldiotan parte hartu zuten hizlariak eskatu zitzaizkien euskal literaturaren ibilbidearen periodizazioak sorrarazten dituen arazoen gainean hausnartzea, eta arazo hauei aurre egiteko proposamenak mahairatzea. Hizlarion txostenak jardunaldian aurkeztu aurretik eskuratu zitzaizkien parte hartzera gonbidatu ziren kideei, eztabaida, iritzi-trukaketa, bateratze-lana... eraginkorragoa izan zedin.

Euskera agerkariaren zenbaki honek prestatu ziren txostenak baino ez ditu argitaratzen, txosten bakoitzak piztutako jarduna eranstea bertan beherra utziz. Baina, eskerrak ematerakoan behintzat, txostengileei luzatutako eskerra zabal bedi jardunaldiko hitzaldi bakoitza osatzen, aberastean, zenbait alderdi auzitan jartzen eta abarretan lagundu zuten gonbidatuengana: mila esker.